

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

NJANak Afapna sindikatuak eskatutako 2017ko LEParen indargabetzea ukatu du

Errekurtsoaren motibaziorik ezaren ondorioz, sindikatuari ezarri dizkio auzi-kostuak

Ostirala, 2018.eko martxoak 16

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak (NJAN) ukatu du gaur goizean zabaldutako auto baten bitartez, Nafarroako Gobernuak 2017rako deitutako Lan Eskaintza Publikoa (LEP) kautelaz indargabetzeko Afapnak egina zuen eskaera errekurtsu judizialaren motibaziorik ezagatik, eta auzi-kostuak ezarri dizkio.

NJANek, Administrazioarekiko Auzien Salak emandako autoaren arabera, eskaera hori ukatu du, sindikatuaren errekurtsuan kausa argi eta nabarmenik ez dagoela ulertuta. Salaren hitzetan, errekurtsogileak eskatutako azterketa kausa honi buruzko epaian baloratu eta erabaki behar da, eta kautela-intzidente batean.

AFPNA sindikatuak 2017ko LEPa onartzeko azaroaren 20ko 116/2017 Foru Dekretua indargabetzea eskatu zuen, plantilla ezein zentrori esleitu gabe eta bakarrik maisu-maistren plazak (B maila) nahiz Bigarren Hezkuntzako irakasleenak (A maila) eta gaztelaniazkoak ala euskarazkoak ote ziren azalduz finkatuta zegoela argudiatuz. Haren esanetan, LEPa ez indargabetzekotan, dagozkion oposizioak, oposizio-lehiaketak eta lekualdatze-lehiaketak egingo ziratekeen, ezin konponduzko edo konponketa zaileko kalteak eraginez aurkeztutako pertsonen.

Gogoan izan behar da, joan den otsailean, NJANek antzeko erabakia hartu zuela sindikatu berberak eskatutako beste kautelazko indargabetze bati buruz. Orduko hartan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzeko azaroaren 28ko 109/2017 Foru Dekretua zela eta. Orduaren ere, euskararen ezagutza nahitaezkoa duten irakasle-plazan eguneratzea izan zen errekurtsuaren ardatza, eta Justiziak berriz ere errefusatu zuen, auzi-kostuak Afapnari ezarri zizkiolarik.